

KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

**EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA
EPEALDIA: 2019-2023**

AURKIBIDEA

SARRERA	3
PROZESUA	4
OINARRIZKO AZTERKETA	5
2.1. Azterketa kuantitatiboa	5
2.2. Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru.	6
2019-2023 EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA	7
3.1. Helburu nagusia	7
3.2. Esparruetako plangintza.	8
1. Familia transmisioa	8
2. Helduen euskalduntzea	9
3. Aisialdia eta kirola	10
4. Bestelakoak	11
3.3. Euskara planaren egitura proposamena	12
ERANSKINAK	13

SARRERA

Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatu zuen eta 2013an Legebiltzarrak onartu. ESEPeK datozen hamar urteetan garatuko den hizkuntza politikaren neurri proposamenak jasotzen ditu, eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillak ESEP izan du gidalerro nagusi eskualde mailako plan estrategikoa definitzeko.

Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillak 2019-2023 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatzeko prozesua abiatu du, oinarrian herritarren eta hainbat eragileren aldetik euskararen bilakaeraren inguruko hausnarketa beharra eta norabide partekatu baten beharra dagoelarik. Prozesu horren baitan, euskarak eskualdean bizi duen egoeraren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin ondoren, plana diseinatu da.

Hurrengo 5 urteetako lehentasunezko helburuak eta ekintzak jaso dira dokumentu honetan; horiez gain, aurreko plangintzalditik datozen ekintzak ere landuko dira, bai eta sor daitezkeen berriak ere. Prozesu osoan zehar, ezinbestekoa izan da eskualdeko eragileen parte-hartzea, eta EMUN Hizkuntza Zerbitzuaren eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillako Euskara Zerbitzuaren arteko elkarlana.

Aurkezten dugun txostenak ondorengo atalak jasotzen ditu:

- Prozesuaren azalpenak: metodologia
- Oinarrizko azterketa
- 2019-2023 epealdiko plan estrategikoa: Landuko diren arloak, helburu nagusiak eta ekintzak
- Eranskinak

PROZESUA

Plangintza estrategikoa diseinatzeko prozesuak hiru fase nagusi hauek izan ditu:

1. LEHEN FASEA: OINARRIZKO AZTERKETA

Analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu dira, 2014-2018 euskara planaren azterketa egiteko. Azterketa Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin egin da. Azterketa hori izan da diseinuaren abiapuntua.

2. BIGARREN FASEA: PARTE HARTZE PROZESUA

Parte hartze prozesuaren bidez herritar eta eragileen arteko hausnarketa estrategikoa bideratu da. Parte hartzeak bi helburu izan ditu:

- Gaur egungo euskararen diagnosi kualitatiboa egitea.
- Etorkizunerako proposamenak lantzea.

Hausnarketa estrategikoa izan da prozesu honen muina eta bertan esparruetako hainbat eragile, herritar, arduradun... elkarrekin bildu dira gune bakar batean. Guztira bi saio izan dira. Saio bakoitzaren ondoren, ekarpen gehiago egiteko aukera ere izan da; Euskara Zerbitzuak saioetan parte hartu duten kideei eta eragile desberdinei saioetan landutakoa emailaz bidali die, ekarpenak egiteko epea zabalduz.

3. HIRUGARREN FASEA: PLANAREN DEFINIZIOA

Azkenik, plana osatu da. Atazak definitzeko irizpide nagusia izan da Eusko Jaurlaritzak eragin eremuko Herri administrazioetan garatzeko diseinatu duen Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin (ESEP) bateragarria izatea. Beraz, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren egitura du planak.



Irudia: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatzeko prozesua.

OINARRIZKO AZTERKETA

Lehenik eta behin, Arabako Mendialdean euskara gaitasuna eta bilakaeraren datu kuantitatiboak jaso eta 2014-2018ko planaren balorazio kualitatiboa egin dugu. Datozen urteetarako lan ildo nagusiak zehazteko beharrezkoa izan da hausnarketa egitea, batetik, egoera soziolinguistikoaren jabe egiteko, eta, bestetik, hobetzeko alderdiak zeintzuk diren identifikatu eta eztabaidatzeko. Azterketa atal hauetan egituratu da:

3.1. Azterketa kuantitatiboa:

Azterketa egiteko EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak Euskararen Datu Basean jasotako **2016ko datuak** erabili ditugu. Hauek izan dira aztertu ditugunak:

- Euskara gaitasuna eta euskara gaitasunaren bilakaera.
- Euskara gaitasuna adinaren arabera eta bilakaera.
- Lehen hizkuntza eta lehen hizkuntzaren bilakaera.
- Euskararen erabileraren bilakaera.
- Euskaraldia 2018

Datuok grafikoetan jarri ditugu, azken urteotan euskarak Arabako Mendialdean izan duen bilakaera irudi bidez ikusi ahal izateko.

Ikusi 1 eranskina.

Datu kuantitatiboak aztertuta, hauxe da egin dugun analisia:

- Gaur egun, Arabako Mendialdeko hiritarren ia erdia **euskaraz ulertzeko gai da** (%41,63) udalen arteko aldean nabarmenak diren arren. Datuok argi esaten digute euskararen gaitasunak nabarmen egin duela gora Arabako Mendialdean 1986tik hona, orduan, ia inork ez baitzekien euskaraz.

Ikusi grafikoak: “Hizkuntza-gaitasuna. Arabako Mendialdea, 2016(%)” eta “Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Arabako Mendialdea, 1986 >> 2016 (%)”.

- Hizkuntzaren gaitasunari **adinaren arabera** erreparatzen badiogu, hauxe da datuek esaten digutena:

Arabako Mendialdeko **haur gehienak euskaldunak** dira (%99,17). 15-34 urtekoen artean **%73,35 euskaraz ulertzeko gai da**. Eta, horretaz gain, horien arteko **% 41,63 euskaraz komunikatzeko** gai da. Ikusi grafikoak: “Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Arabako Mendialdea, 2016(%)” eta “Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. Arabako Mendialdea, 1986 >> 2016 (%)”.

- Lehen hizkuntzari dagokionez, datuak ez dira asko aldatu azken urteotan: erdara da Arabako Mendialdea hiritar gehienek lehen hizkuntza.

- Gaur egun, Arabako kaleko euskararen erabilera datua oso baxua da.

- Eta azkenik, irakaskuntzako hizkuntza erduei dagokienez, D erdua da bakarra Mendialdea IPI ikastetxean eta B erdua Maeztuko Herri Eskolan. Gasteizera joaten diren ekialdeko herrietako haurrak Adurtza ikastolan ikasten dute, D erduan beraz. Ez dago datu zehatzik eskualdetik kanpo ikasten duten DBH mailako ikasleei buruz; ezta ondorengo mailetara igarotako ikasleei buruz.

Hortaz, Arabako Mendialdean euskara gehiago erabiltzeko aukerak nabarmen zabaldu dira. Hau D erduak izan duen gorakadaren ondorioz gertatu da, bereziki.

Hauek dira zabaldu diren aukerak:

- Urte gutxitan Arabako Mendialdean guraso asko euskaldunak izango dira.
- Gaur egun, Arabako Mendialdeko haur guztiek euskal ereduan ikasten dute.

3.2. Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru.

Esparru bakoitzeko ekintza nagusi eta esanguratsuenak bildu ditugu, eta horien sintesia jaso dugu txostenean. Balorazioa herritar eta esparru desberdinetako eragileen artean egin da, “Blue Ocean” dinamika erabilia. Dinamika honen bidez, azken 4-5 urteetan egindakotik zer mantendu/indartu, zer gutxitu/murriztu, zer kendu eta zer sortu identifikatu dira. Ondorengo esparruak landu ditugu (**ikusi 2. eranskina**):

- Familia transmisioa.
- Helduen euskalduntzea
- Aisia eta Kirola.
- Bestelakoak

Familia transmisioa: Euskara ikasteak euskararen ezagutza bermatzen du, baina ez du erabilera bermatzen. Eta badakigu erabileran pisu handia duena familia-hizkuntza dela, eta, noski, familiaren harreman-sareko hizkuntzak. Beraz, euskara berrindartu eta erabilera handitzeko familia barruko hizkuntza transmisioa oinarritzeko bitartekoa da.

Arabako Mendialdean, euskara dakiten gurasoek euren seme-alabei euskara transmititzeak daukan garrantziaz jabetzeko, hainbat ekintza egin eta bideratu dira azken urteotan, eta aurrera begira ere ekintza hauek mantendu, indartu edota berriak sortzeko beharra ikusi da bereziki erabilerari bideratuta.

Helduen euskalduntzea: Ez da berria edozein hizkuntzaren berreskurapen prozesuan helduen parte-hartzeak duen garrantzia. Haurrek eskolan euskaraz ikasi arren, gero beren ingurunean erdara bada nagusi, beraien artean ere erdara nagusituko da. Zenbaitetan pertsona helduen artean eragiteak, hurrengan ere eragina du; akaso batzuek euskaraz ikasteko aukerarik izan ez badute ere, etorkizunean beren seme-alaben artean euskara ikastea ahalbideratu ahal izatea eskaintzen da. Beraz, garrantzitsua bakarrik ez, euskalduntzea erabakiorra gertatuko da euskararen bilakaeran. Hainbat ekimen burutu ditu azken urteotan Euskara Zerbitzuak helduek euskara ikasi eta erabiltzeko guneak sortu eta ekintza desberdinak bideratuz: berbalagun, bertso-eskola, euskara eskolak... Hurrengo urteetan, orain arte egindakoarekin jarraitu eta Arabako Mendialdeko edozein herritarri euskalduntzeko erraztasunak eta laguntzak handitzea beharrezkotzat jo da.

Aisia eta kirola: Oso garrantzitsua da kirolean eta horrelako jardueretan haurrak euskaraz ohitzea, gero haien kabuz jolasten aritzen direnean askotan antzeko jarduerak egiten dituztelako. Lehendik euskaraz egitera ohitu badira, gero errazagoa izango da jarduera hori egiten trebatu diren hizkuntzan aritzea. Baina, oraindik ere, euskararen erabilera urria dela ikusita aurrerantzean ere landu beharreko esparrua da, ezinbestean.

Besterik: interesgarriak jo dira beste esparruak, hala nola, euskara ez dakiten pertsonen sensibilizazioa, administrazioaren esparruan hizkuntzen errespetuari dagokion atala, eta landuko diren helburuen komunikazioa eta sozializazioa

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2019-2023

Orain arte egindakotik zein ekintza mantendu/indartu, zeintzuk kendu eta zein ekintza sortu beharko lirartekeen identifikatu dira. Baina, ideia eta asmo onak definitzea ez da nahikoa izaten egitasmoetan arrakasta lortzeko. Esparru bakoitzean zein helburu eta ekintza garatuko ditugun jakitearekin bat, beharrezko zaigu lan egiteko oinarri egokiak jartzea, hau da, ekintzak nola garatuko ditugun adostea. Beraz, “Blue Ocean” ariketa egin ondoren, 2019-2023 epealdian esparru bakoitzean lortu beharreko **helburu nagusiak** adostu dira guztien artean, eta baita helburu horiek lortzeko **ekintzak** ere.

HELBURU NAGUSIA

Parte hartze prozesuan, euskararen egoera etorkizunean irudikatu da. Jasotako iritzi eta proposamenekin planaren helburu nagusia definitu dugu. Helburu nagusia ondorengo hiru zutabe osatzen dute:

- Familia barruko hizkuntza erabilera indartzeak du lehentasuna, beraz, familia giroan euskarazko jarduerekin gozatzeko egoerak eta ekintzak sustatuko dira.
- Euskararen erabilera bermatzea beharrezkotzat jo da 0-16 urte bitarteko haur eta gazteen aisialdian, Udalek, guraso elkarteek edota eskualdeko elkarteek antolatzen dituzten jarduerak, kirolean zein kultur arloan.
- Erabilera handitzea garrantzitsua da helduen artean ere bai, hortaz, euskalduntzea sustatuko da erabilera guneekin batera.

Euskararen biziberritzean euskaraz egiteko guneak eta uneak indartzeak berebiziko garrantzia du, zenbat eta erabilera aukera gehiago izan, orduan eta hiztun trebeagoak lortzen direlako. Haur, gazte eta helduek euskaraz eroso eta natural sentitzeko aldeko ingurunea dutela sumatu behar dute, eta, horretarako, sozializazioa euskaraz ere izatea beharrezko da.

Sozializazioan hiru oinarritzko elementuek hartzen dute parte: eskolak, komunitateak eta familiak. Eta hirurak elkarlotuta daude, beraz, hiru horietan eragiteak du lehentasuna.

Eskolan helburu komunikatiboa areagotzen duten jarduerak sendotzea izango da norabidea, “Gu ere bertsotan”, antzerki, aldizkari eta antzeko ekintzak, besteak beste.

Bestalde, familia gakoa da hizkuntza eskuratzerakoan. Familia, ahal den neurrian, murgiltze linguistikoaren eremu bihurtu behar da euskaraz eginez, edota, euskarako kultur eskaintza etxekoen eskura jartzen.

Eta, azkenik, gertuko komunitatea (lagunak, zerbitzuak, elkarteak...) euskaraz izan dadin saiakera sendoa egin behar da, beraz, komunitatearengandik gertu egon eta ekintzak eta diskurtsoak lantzea ikusten dugu beharrezko hurrengo plangintzaldi estrategikoan. Aisialdia eta kirola euskalduntzeko elkarteekin harreman iraunkorra izatea gakoa izango da, euskaraz egiteko apustua barnera dezaten eta neurriak har ditzaten norabide horretan.

ESPARRUETAKO PLANGINTZA

Azterketa oinarri hartuta, lehentasunezko esparru hauek landu dira hausnarketa estrategikoan parte hartu dutenekin batera:

- Familia transmisioa
- Helduen euskalduntzea
- Aisia eta Kirola
- Bestelakoak

1. FAMILIA TRANSMISIOA

Helburuak

- 1.1. Gurasoei euskararen erabileran laguntzeko tresnak eman eta sentsibilizazioa landu
- 1.2. Elkarlana landu (zerbitzuak, herri mugimenduak, ikastetxeak...)
- 1.3. Erabileran eragin

Ekintzak

- 1.1.1. Guraso erdaldunei formazioa, saioak eskaini euskarazko oinarrizko hitzak ikasteko eta euskararen inguruko sentsibilizazioa lantzeko
- 1.1.2. Kuadrillan jaiotzen diren haur jaio berrien gurasoei etxean euskararen erabilera sustatzeko aholku sorta eta abestiak oparitu
- 1.1.3. Atzerritarrak euskarara hurbiltzeko ekintzaren bat antolatu.
- 1.2.1. Haur Hezkuntzako ir akasleek (tutoreek) gurasoak sentsibilizatu eskolaz kanpo euskara erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko: aholkuak eman
- 1.3.1. Haur eta gazteentzako erabilera esparruak sortu.
- 1.3.2. Familiek euskaraz jarduteko esparru mugatuak sortu, arnasguneak (ikastetxe inguruko euskara hutsezko esparru bat, adibidez)
- 1.3.3. Ludoteka eta antzekoetan haur eta gurasoentzako euskarazko ekintzak antolatu: ipuin kontaketak, literatur tailerrak...

Arduraduna

Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, guraso elkarteak

Eragileak

Guraso elkarteak, Udalak, Kuadrilla, herri mugimenduak

2. HELDUEN EUSKALDUNTZEA

Helburuak

- 2.1. Helduentzako erabilera guneak sortu
- 2.2. Helduen ezagutza handitu

Ekintzak

- 2.1.1. Mintza laguna antolatu. Pertsonen interesen arabera taldeak sortu.
- 2.1.2. Mintzodromoak antolatu
- 2.1.3. Udaletan gaztelaniaz antolatzen diren ekintzak euskaraz ere antolatzea landu
- 2.2.1. Udan helduentzako barnetegi txikiak antolatu
- 2.2.2. Euskaltegia joateko garraio sistemak antolatu: kotxeak partekatu, autobus zerbitzuak...
- 2.2.3. Euskaltegien arteko harremanak eta euskara ikasleen arteko harremanak sendotu.
- 2.2.4. Euskara ikasle estrategiko izan daitezkeenei erraztasunak eman (ordutegiak, taldeak...): merkatariak, ostalariak...
- 2.2.5. Udalerri guztiek diru-laguntzak eman euskara ikasten dutenei. Beka sistema martxan jarri

Arduraduna

Euskara Zerbitzua

Eragileak

Euskara taldeak, euskaltegia, Euskaraldiko taldea, Udalak, Mintza lagunak, Kuadrilla

3. AISIALDIA ETA KIROLA

Helburuak

- 3.1. Kirol esparru antolatuan eragin
- 3.2. Erakunde publikoen zein herri mugimenduen inplikazioa bilatu
- 3.3. Gazteen intereseseke ekintzak antolatu.
- 3.4 Euskaraz antolatzen den guztia ikusarazi

Ekintzak

- 3.1.2. Kirol taldeetan euskararen erabilera handitzea sustatu, kirol elkarten eta udalen lankidetzaz.
- 3.1.3. Begirale, hezitzaile euskaldunen lan poltsak sortu.
- 3.2.1. Erakunde publikoek diruz laguntzen dituzten jardueretan, euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartzeko eskatu (megafonia, kartelak...)
- 3.2.2. Udalek euskarazko jarduerak sustatu diruz lagunduta.
- 3.2.3 Kirol, aisialdi eta kultur taldeen konpromisoa landu euskarazko ekintzak antola ditzaten.
- 3.2.4 Liburutegiko ordutegia zabaldu. Euskarazko liburuen irakurketa sustatzeko jarduerak antolatu
- 3.3.1 Irrati edo komunikabide erakargarri bat sortu: gazteentzat eta gazteek egindakoa.
- 3.3.2 Euskarazko ekintza erakargarrik sortu gazteentzat (bideo lehiaketak...)
- 3.4.1 Mendialdeko euskararen agenda sortu.

Arduraduna

Euskara Zerbitzua, Udalak,

Eragileak

Kirol taldeak, Udalak, Kuadrilla, kirol, aisialdi eta kultur taldeak, herri mugimenduak, Gazte txokoa

4. BESTELAKOAK

Helburuak

- 4.1. Erdal hiztunen sentsibilizazioa landu
- 4.2. Herritarren hizkuntza eskubideak erakundeetan bermatzea landu.
- 4.3. Euskara plana sozializatu
- 4.4. Herritarren aktibazioa landu
- 4.5. Erakunde publikoen eta herritarren inplikazioa bilatu

Ekintzak

- 4.1.1. Euskaraz ez dakitenei zuzendutako kanpainak egin (euskara ere gurea)
- 4.2.1. Erakundeetan zerbitzua euskaraz ematen dela ziurtatu
- 4.2.2. Kale izendegiak euskaraz
- 4.2.3 Lan poltsetan langile publikoen ezagutza bermatu.
- 4.2.4 Lanpostu estrategikoetako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak zehaztu
- 4.2.5 Udaletako langileek euskara erabiltzeko ikastaroak antolatu
- 4.2.6 Merkataritzan eragin: dendak eta tabernak euskalduntzeko diru-laguntzak eman (hiztegi txikia, errotulazioa, ...)
- 4.3.1 Onartzen den Euskara planaren komunikazioa, zabalkundea eta jarraipena egin, Erakundeetan eta herrietan
- 4.4.1 Euskaraldian parte hartu zuten herritarrekin jardunaldi bat antolatu
- 4.5.1 Euskara planaren jarraipen taldea sortu


Arduraduna

Euskara Zerbitzua, Udalak

Eragileak

Udalak/Kuadrilla, erakunde publikoak, euskara taldeak, Euskaraldiko taldea, herritarrak

EUSKARA PLANAREN EGITURA PROPOSAMENA





LANTALDEAK helburu jakin batzuk lantzeko (Euskaraldia, erabilera handitzeko ekintzak, ...)



ERANSKINAK

1. erankina: Azterketa kuantitatiboa



- Euskara gaitasuna eta euskara gaitasunaren bilakaera.




- Euskara gaitasuna adinaren arabera eta bilakaera



- Lehen hizkuntza eta lehen hizkuntzaren bilakaera.



- Euskararen erabileraren bilakaera.



- Euskaraldia 2018



2. eranskina: Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru:

Aipatu bezala, “Blue Ocean” dinamika erabili dugu esparru desberdinetako balorazioa egiteko. Hona hemen:

1. ARIKETA: MENDIALDEKO EUSKARAREN EGOERAREN BALORAZIOA

<p>INDARGUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen ezagutza gora doa - Euskararen aldeko pertsona militanteak dauzkagu; gogotsu borrokatzen dute euskararen alde. - Euskara elkargune bihurtzen da euskararentzat, beste euskaldunekin identifikatzeko ikur. - Udaletan gero eta langile euskaldun gehiago dago; berriak euskaldunak. - Ikastetxe eta guraso elkarteek antolatzen dituzten gelaz kanpoko ekintzak euskaraz izaten dira oro har: jangelako begiraleak, kirol jarduerak... - Laster euskararen ulermena bermatuta egongo da Mendialdean. Biztanle gehienek euskaraz ulertuko dute. - Gaztelaniaz hitz egiteko ohitura duten gaztetxo batzuk Batxilergoaren ondoren euskarara bueltatzen dira. - Mendialdeko haurren artean gero eta gehiago dira ama hizkuntza euskara dutenak. 	<p>AHULGUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oraindik badaude euskararen kontrako jarrera dutenak. - Zenbait toki estrategikotan langile erdaldunak daude: liburutegian, udaletako lanpostu estrategikoetan.... - Euskara ikasteko taldeak antolatzeko zailtasunak daude: euskara maila desberdinak, herrien arteko distantziak... - Herri batzuetan ez dago euskara ikasteko bekarik. - Etxean edota ikastetxean euskara ikasi arren, haur-gazte asko gaztelaniaz mintzatzen dira egunerokoan. - Gazteek ez dute euskararekiko atxikimendurik, maitasunik? - Haur eta gazteen aisialdian eta kirolean dabilzan begirale/hezitzaile batzuk ez daukate euskara maila nahikorik euskaraz jariotasunez aritzeko. Zailtasunak ditugu euskaraz eroso aritzen diren gazte euskaldunak aurkitzeko. - Euskara akademikoa lantzen dute haur/gazteek. Euskara eskolarekin lotzen dute askok. Euskaraz ez da guay.
<p>AUKERAK</p>	<p>MEHATXUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erreferente euskaldunak falta dituzte gure haur eta gazteek: youtuberrak, istagram... - Mendialdeko herriak sakabanatuta daude beraien artean; herri batzuen artean harreman gutxi.

2. ARIKETA: AURREKO EPEALDIKO EKINTZEN BALORAZIOA

<p>ZER MANTENDU EDO INDARTUKO ZENUKE?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egiten dena mantendu eta zenbait gauza hobetu - Ekintzetan parte hartzea handitu beharko genuke 	<p>ZER MURRIZTU/GUTXITUKO ZENUKE?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gauza gehiago ez ditugu egin behar, baina hobetu koordinatu behar gara
<p>ZER SORTUKO ZENUKE?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Koordinazio gune bat sortu beharko genuke, euskaraz izango diren ekintzak antolatzeko eta elkarren berri izateko - Irrati edo komunikabide erakargarri bat sortu gazteentzat. Gazteek egindakoa. - Euskaldunak ez direnei zuzendutako kanpainak egin, kontrako jarrerak murrizteko. - Mendialdeko euskararen agenda sortu. - Aldi bereko itzulpen sistema egiteko baliabideak erosi, hitzaldiak, aurkezpenak... euskaraz egiteko. - Helduentzat euskaraz hitz egiteko guneak sortu. - Euskara beste helburu batzuekin lotu. - Euskaraldian parte hartu duten pertsonekin zerbaite antolatu. - Helduentzako kirol eskaintzan euskarazko eskaintza sartu. 	<p>ZER EZABATUKO ZENUKE?</p>

3. HAUSNARKETA SAIOETAN EGINDAKO EPARPENAK.

AIISIALDIA

- Liburutegiko ordutegia zabaldu. Euskarazko liburuen irakurketa sustatzeko ekimenak: euskarazko liburuak bistaratu, Familientzako euskarazko liburuekin osatutako motxilak (aurretik egindako ekimen bat da, oso interesgarria), euskarazko liburuak gomendatu...
- Begirale, hezitzaile euskaldunen lan poltsak sortu.
- Euskarazko kirol topaketak antolatu.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA

- Euskaltegira joateko garraio sistemak antolatu: kotxeak partekatu, autobus zerbitzuak...
- Udarako minibarnetegiak antolatu; helduentzako klaseak.
- Frontoia espazio publiko gisa bereskuratu, euskarazko ekintzak egiteko: pilota klaseak berriro martxan jarri.
- Euskaltegien arteko harremanak eta euskara ikasleen arteko harremanak sendotu.
- Mintzalaguna proiektua indartu. Talde txikiagoak antolatu.
- Euskara ikasle estrategikoei izan daitezkeenei erraztasunak eman (ordutegiak, taldeak...): merkatariak, ostalariak...

FAMILIA TRANSMISIOA

- Guraso erdaldunei formazioa, saioak... euskarazko oinarrizko hitzak ikasteko eta euskararen inguruko sentsibilizazioa lantzeko.
- Atzerritarrak euskarara hurbiltzeko zerbait antolatu.
- Haur Hezkuntzako irakasleek (tutoreek) gurasoak sentsibilizatu eskolaz kanpo euskara erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko: aholkuak eman.

BESTELAKOAK

- Mintzodromoak antolatu; euskara erabiliko den guneak. Euskara entzule izatetik euskara erabiltzera pasatzeko.
- Kirolean euskararen presentzia bermatzeko irizpide minimoak ezarri.
- Antolatzen diren ekitaldietan euskararen presentzia minimoa bermatu; dirulaguntzekin lotu.
- Erakundeetan zerbitzua euskaraz ematen dela ziurtatu.
- Onartzen den Euskara planaren komunikazioa, zabalkundea eta jarraipena egin. Erakundeetan eta herrietan.
- Kale izendegiak euskaraz.
- Merkataritzan eragin.
- Gune euskaldunak sortu eskolako sarrera-irteera eta patioetan (gurasoei begira).
- Elkarrekin lan egin konpromisoak landuta.
- Euskararen inguruko sentsibilizazioa handitzeko komunikazio kanpainak antolatu.

JARRAIPEN BATZORDEA

Datozen lau urteetarako euskara plana Kuadrillak onartu behar du.

- Udaletako euskara arduradunak (derrigorrez)
- Kuadrillako politikoren bat (derrigorrez)
- Kuadrillako euskara teknikaria

Horiez gain, udaletan euskararen gaia zeharka landu behar da, arlo guztietan: kirola, kultura...

LANTALDEAK sortu daitezke helburu konkretu batzuk lantzeko.

GUNE bat Euskara Planaren jarraipena egiteko eta elkarren berri izateko. Lan karga gehiegi izan gabe, zerbait praktikoa.

